

BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.**IRAGARKIA**

Bilbao Ekintza, E.P.E.L. enpresan hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuko **lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioa eta bigarren ariketa egiteko eguna eta lekua.**

2023ko urtarrilaren 16an eta 2023ko otsailaren 2an egindako bileretan, Kanpo Sustapeneko eta Marketineko teknikari lanpostu bat (derrigorrezko euskararen 2. hizkuntza eskakizuna duena) jabetzan betetzeko hautaketa-prozesua epaitu behar duen epaimahaiak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Jakinaraztea ez dela erreklamaziorik egin epearen barruan lehen ariketaren behin-behineko kalifikazioaren aurka.

Bigarrena.- Oposizioan GAI izan diren izangaiek **LEHENENGO ARIKETAN** lortutako **behin betiko kalifikazioa** onartzea eta argitaratzea, gutxienez 10,00 puntu lortu dituztelako eta deialdiaren oinarrietan jasotako ariketako probak gainditu dituztelako. Zerrenda hori iragarki honekin batera doa, eta egindako probaren batean EZ GAITZAT jo direnak kanporatuta geratu dira.

Hirugarrena.- Lehenengo ariketan GAI suertatu diren pertsoneri dei egiten zaie oposizio-faseko bigarren ariketa (kasu praktikoa) egin dezaten. Ariketa hori nahitaezkoa eta baztertzailea izango da, jarraian adierazten den egunean, orduan eta lekuan, NANA aurkeztu beharko dute, baita idazteko tresnak ere:

Eguna: **osteguna, 2023ko otsailaren 16a**


Ordua: **9:45**

Lekua: **Turismo Bulegoa** (beheko solairua), Plaza Circular 1, 48001 Bilbo, ate nagusiko sarbidetik.

Laugarrena.- Lehenengo ariketan GAI deklaratu diren izangaiei **jakinarazten zaie** bigarren ariketaren edukia eta zuzentzeko irizpideak (kasu praktikoa) honako hauek izango direla:

- a) Idatziz eta gehienez ere bi orduz, epaimahaiak proposatutako kasu praktikoa bati buruzko ebazpen-proposamena duen txosten bat egin beharko da.
- b) Zuzentzeko irizpideak: arrazoitzeko gaitasuna, antolaketa, ondorioak planteatzeko eta formulatzeko sistematika, araudi aplikagarria ezagutzea eta behar bezala interpretatzea, eta ezarritako helburuak lortzeko erdiesteko prozedura egokiak ezagutzea baloratuko dira funtsean.
- c) Gehienez ere 30 puntuz baloratuko da, eta nahitaez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
- d) Zuzenketa anonimoa izango da, pliken sistemaren bidez, eta izangaiak ariketa kalifikatu ondoren identifikatuko dira.
- e) Ariketa egiteko, izangaiek ezin izango dute dokumentaziorik ekarri.

Bilbon, 2023ko otsailaren 2a



EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE

Lehenengo Ariketako behin betiko kalifikazioak

BE2018-0003
KANPO SUSTAPENeko ETA MARKETINEKO TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE PROMOCIÓN EXTERIOR Y MARKETING

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo atala Primera parte	Bigarren atala Segunda parte	Guztira Total	
*891***1R	ARBE	IRIONDO	ELIXABETE	9,37	7,55	16,92	GAI